



ZINEBI 68

PÓRTICO ZINEBI ATARIA

GAZTEDOKU 2026

DOKUMENTALEN ETA EZ-FIKZIOZKO LANEN EGILETZA GARATZEKO PROGRAMA

PARTE HARTZEKO OINARRIAK

A. ALDERDI OROKORRAK ETA PROGRAMAREN XEDEA

1. Pórtico ZINEBI Ataria prestakuntza akademikoaren, sortu berri den ikus-entzunezko sorkuntzaren eta jarduera profesional zinematografikoaren arteko trantsizio espazio bat da.
2. Gaztedoku 2026 dokumentalen eta ez-fikziozko lanen egiletza garatzeko ekimen bat da, ZINEBI – Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak bultzatutakoa. Bere izenak euskarazko bi hitz elkartzen ditu, *gazte* eta *dokumentala*: asmoen adierazpen bat da, zeinaren bitartez argi eta garbi azaltzen baita nori zuzenduta dagoen eta zer nolako zinema axola zaion. Programa sorkuntzako lehen etapetan dauden eta esku artean proiektu bat duten zinemagileentzat pentsatuta dago, denbora, entzutea eta sektorearekin harremanetan jartzea behar duten horientzat.
3. Gaztedokuren helburua da dokumentalen eta ez-fikziozko lanetan ahots berrien agerpena erraztea, proiektuen garapenari lehen faseetan laguntzea, eta sortzen ari diren zinemagileek zinema dokumentalaren eta ez-fikziozko zinemaren ekosistema profesionalarekin harremana izan dezaten erraztea.
4. Gaztedokuk uste osoa du sormen askatasuna funtsezko balio bat dela dokumentalak eta ez-fikziozko lanak sortzeko, ibilbide baten lehen etapetan batik bat. Programak errespetuzko jarrera batekin laguntzen ditu proiektuak, egindako proposamenaren berezitasuna aintzat hartuta, eta begirada, lengoia eta irudikapen modu anitzak esploratzea bultzatzen du.
5. Programa ZINEBI 68ren esparruan egingo da, 2026ko azaroaren 22tik 25era. Antolatzaileek adierazitako datak egokitu ahal izango dituzte beharrezkoa izango balitz.
6. Hautatutako proiektuak aurkezteko eta proiektatzeko jendaurreko saioa, geroago aldaketarik egin ezean, 2026ko azaroaren 23an izango da, astelehenean, EHUren Bizkaia Aretoko Mitxelena aretoan.

B. ANTOLAKUNTZA ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

1. Gaztedoku 2026 ZINEBI – Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak eta SGAE Fundazioak antolatzen dute, eta SGAEren Euskadiko Lurralde Kontseiluaren laguntza eta EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen babesa ditu.
2. ZINEBIren zuzendaritza izango da oinarri hauek interpretatzearen eta horiek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen auziak ebaztearen arduradun bakarra.

C. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA ESPARRUA

1. Gaztedoku 2026 antolatzaileek aldeztu aurretik gonbidatutako ikastegi batean 2026-2027 ikasturtean matrikulatutako ikasleei zuzenduta dago, bai eta ikastegi horietan aurreko bi ikasturteetan (2024-2025 eta 2025-2026) ikasketak amaitu dituzten pertsonen ere.
2. Parte hartzaileek dagokion ikastetxearekin duten harremana egiaztatu beharko dute, harreman hori eta, hala badagokio, matrikulatuta egon ziren edo ikasketak amaitu zituzten ikasturtearen data argi eta garbi egiaztatzeko balio duten dokumentuen kopiaren bidez: matrikula, titulua, ikasketa-espeditentzia, ziurtagiria edo dokumentu baliokidea.
3. Proiektuak hasierako edo tarteko garapen fasean dauden proposamen dokumentalak edo ez-fikziozkoak izan behar dute, eta sorkuntza eta ikus-entzunezko garapenaren behar adina elementu izan beharko dituzte, hautaketa batzordeak ebaluatu ahal izan ditzan. Ez da onartuko amaitutako proiekturik, ezta haien produkzioa edo postprodukzioa burututa duenik ere.



4. Proposamenek originalak behar dute. Parte-hartzaileek formalki adieraziko dute aurkeztutako proiektuek ez dutela hirugarrenen eskubiderik urratzen.
5. Talde bakoitzak proiektuaren arduradun bat izendatu beharko du, antolatzaileekin harremanetan jarri ahal izateko.

D. IZENA EMATEKO EPEA ETA MODUA

1. Izena emateko epea 2026ko ekainaren 15etik irailaren 21era arte egongo da zabalik, biak barne.
2. Gaztedoku 2026en parte hartzeak ez dakar inolako izen emate gasturik.
3. Dokumentazioa dokumentu bakar batean eta PDF formatuan bidali beharko da, dagozkion ikus-entzunezko estekekin batera.
4. Aipatu materiala honako helbide honetara bidali behar da: networking@zinebi.eus

E. DOKUMENTAZIOA

Izen ematea formalizatu ondoren, proiektu bakoitzak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du PDFan, ordena honetan:

1. Proiektuaren fitxa teknikoa eta artistikoa.
2. Proiektuaren behin-behineko izenburua.
3. Parte hartzaileak dagokion ikastegiarekin harremana duela egiaztatzen duen agiria, esku artean dituzun oinarrien C.2 atalean ezarritakoaren arabera.
4. Sinopsi laburra, gehienez 900 karakterekoa.
5. Egiletza asmoen testua, gehienez 2.500 karakterekoa.
6. Proiektuaren azalpen memoria, gehienez 10.000 karaktere eta 10 orrialdekora.
7. Proiektuaren egungo egoera, garapen fasea, behar nagusiak eta taldeak bere proiektuan, Gaztedokun hautatua izanez gero, landu nahi lituzkeen alderdi nagusiak.
8. Proiektuaren teaser edo ikus-entzunezko pilotua aurkezteko aukera dago, 3 eta 6 minutu artekoa, esteka pribatu bidez edo pasahitz bidez babestuta. Aurkeztuz gero, Hautaketa Batzordeak kontuan hartuko du proiektua ebaluatzeko material osagarri baliotsu gisa.
9. Proiektuaren ardura duen pertsonaren edo pertsonen, gutxienez, ikus-entzunezko lan baterako esteka pribatua edo pasahitz bidez babestua, edozein genero edo formatutan egindakoa.
10. Zuzendaritza arduratzen den pertsonaren edo pertsonen biografia laburra.
11. Intereseko gutunak, dokumentu lagungarriak edo material osagarriak, halakorik izanez gero.
12. Proiektuaren arduradunaren harremanetarako datuak, ZINEBIrekin harremanetan jarri ahal izateko.

Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzi eta aurkeztu ahal izango dira Ondoren, antolatzaileek bertsio laburtuak edo ingeleserako itzulpenak eskatu ahal izango dituzte, komunikazio helburuetarako, aurkezpen profesionalerako edo hautatuko proiektuen zerrenda eskatu ahal izango dute, gonbidatutako eragileekin, Bilbon egiten diren lan jardunaldietan zehar.

F. HAUTAKETA PROZESUA ETA IRIZPIDEAK

1. ZINEBIko zuzendaritzak, SGAE Fundazioarekin adostuta, aurkeztutako proiektuak ebaluatzeaz arduratuko den hautaketa batzordeko hiru kideak izendatuko ditu. Jaialdiaren webgunean emango da batzordearen osaeraren berri.
2. Hautaketa egiteko, kontuan hartuko dira proposamenaren kalitatea, potentzialtasun zinematografikoa, egiletza ahotsaren argitasuna, proiektuaren garapen maila eta laguntza profesionaleko testuinguru batean izan dezakeen bilakaera gaitasuna. Hautagaitzarekin batera teaser edo ikus-entzunezko pilotu bat aurkeztu bada, batzordeak, halaber, haren egokitasuna eta kalitatea baloratuko ditu. Hautaketa prozesuan zehar material hori ez egoteak ez du eragotziko proiektua hautatu ahal izatea.
3. Gehienez zortzi proiektu hautatuko dira: lau Euskal Autonomia Erkidegoko ikastegietatik eta lau Estatuko gainerako lurraldeetako ikastegietatik.
4. Antolatzaileek kopuru eta banaketa hori aldatu edo murriztu ahal izango dute, baldin eta izen emate kopuruak edo jasotako proiektuen kalitateak hori egitea gomendatzen badu.
5. Hautaketa 2026ko urrian zehar jakinaraziko zaie parte hartuko duten taldeei.
6. Hautaketa batzordearen erabakiak apelaezinak izango dira.

G. PROGRAMAREN DINAMIKA

1. Gaztedokurako hautatutako proiektuak Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaia Aretoko Mitxelena aretoan aurkeztuko dira jendaurrean, 2026ko azaroaren 23an, astelehenean, goizean, antolatzaileek geroago aldaketarik egin ezean, Pórtico ZINEBI Ataria programaren beste arlo batzuetako lanak ere proiektatuko diren saio batean.
2. Aurkezpen publikoan, proiektuaren teaserra edo ikus-entzunezko pilotua proiektatuko dira, gutxienez 3 minutukoak eta gehienez 6 minutukoak, eta talde bakoitzak libreki aurkeztu nahi dituen edukiak aurkeztuko dira. Hautaketa prozesuan zehar material hori aurkeztu ez duten taldeek ondoren aurkeztu beharko dute, eta antolakuntzari eman beharko diote jendaurreko saioa egin aurretik.
3. Hautatutako proiektuen ordezkariak lanerako saio bat izango dute aholkulariekin, espezialistekin, sektoreko profesionalekin, *commissioning editorekin* eta erakundeak gonbidatutako industriako eragileekin.
4. Antolatzaileek hautatutako taldeei parte hartzen duten beste proiektu batzuetako materialak edo informazioa ikusteko aukera eman ahal izango diete, kontraste dinamikak,



laguntza kolektiboa eta proposamenen arteko elkarriaketa bultzatzeko.

5. Gaztedokuren berezko jardueretan parte hartzeaz gain, hautatutako pertsonak entzule gisa joan ahal izango dira, ordutegiek ahalbidetzen dutenean, ZINEBIren industria jardueretara eta Foro Profesionalaren jardueretara.
6. Parte hartzaileek ZINEBI 68ko jarduera eta proiektio guztietara joateko akreditazioa izango dute programa Jaialdian garatzen den egunetan.
7. Jaialdiak parte hartzaileen, profesionalen, zinemagileen, aholkularien, programatzaileen edo ZINEBIra gonbidatutako pertsona ospetsuen arteko harremanak errazteko espazioak gaitu ahal izango ditu.

H. MUGIKORTASUNERAKO ETA EGONALDIRAKO LAGUNTZAK

1. Erakundeak mugikortasun eta egonaldiako laguntzak emango dizkie, gehienez, hautatutako proiektu bakoitzeko bi pertsonari.
2. Euskal Autonomia Erkidegotik datozen eta ohiko bizilekua Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo duten proiektuen kasuan, antolatzaileek joan-etorrietarako, ostaturako eta dietetarako laguntzak eman ahal izango dituzte, egiaztatutako premien eta aurrekontu baliabideen arabera.
3. Estatuko gainerako lekuetatik datozen taldeen kasuan, laguntzak Bilborako joan-etorria, hiru gauetako ostatua eta parte hartzen den egunetako dietak estali ahal izango ditu.
4. Mugikortasun eta egonaldiako laguntzak ez dira sari ekonomikotzat hartuko, eta Gaztedokun aurrez aurre parte hartzeari lotuta egongo dira soilik.
5. Erakundeak zehaztuko du, kasu bakoitzean, joan-etorriak, ostatuak eta dietak kudeatzeko modua.
6. Adingabeek parte hartzen badute, nahitaezkoa izango da haien legezko ordezkariak berariazko baimena ematea, bai Gaztedoku 2026en parte hartzeko, bai, hala badagokio, programa egiten den egunetan Bilbora joateko eta bertan geratzeko.
7. Adingabeek pertsona heldu arduradun batekin batera lekuak hartu eta ostatu hartu beharko dute. Heldu hori prestakuntza zentroak edo haren legezko ordezkariak izendatuko dute formalki, eta adingabeak Gaztedoku 2026en aurrez aurre parte hartzen duen bitartean hari laguntzeko eta haren arduradun izateko egitekoa izango du.

ZINEBIk ez ditu inola ere bere gain hartuko parte hartzen duten adingabeen zaintza, tutoretza edo jagoletza eginkizunak. Erakundeak kasu bakoitzean zehaztuko ditu laguntzaile horren joan-etorriak eta ostatua estaltzeko baldintzak.

I. EPAIMAHAI ETA GARAPENERAKO LAGUNTZAK

1. ZINEBIko zuzendaritzak SGAE Fundazioarekin adostuta izendatutako epaimahai batek erabakiko du esku artean dituzun oinarri hauetan aurreikusitako garapenerako

laguntzak ematea. Epaimahaiaren osaketa bat etor daiteke, partzialki edo osorik, hautaketa batzordearekin.

2. Epaimahaiaren erabakia jendaurrean jakinaraziko da Gaztedoku 2026 egiten den bitartean edo antolatzaileek zehazten dituen ondo-ondoko egunetan.
3. Garapenerako bi laguntza emango dira eta bakoitza 3.000 eurokoa izango da:
 - a. Euskal Proiektua Garatzeko Gaztedoku laguntza, Euskal Autonomia Erkidegoko eskola, fakultate edo prestakuntza programa batetik datorren proiektu batentzat.
 - b. Estatuko Proiektua Garatzeko Gaztedoku laguntza, Estatuko gainerako lurraldeetako eskola, fakultate edo prestakuntza programa batetik datorren proiektu batentzat.
4. Laguntzak saritutako proiektuak benetan garatzeko baino ez dira izango.
5. Laguntzak ordaintzeko derrigorrezkoa izango da fakturak, egiaztagirak edo proiektuaren garapenarekin lotutako gastua egiaztatzen duten agiriak aurkeztea, eta bi epetan egingo da hori: erdia epaimahaiak aukeratzen dituenean aurkeztu beharko da, eta beste erdia proiektuan laguntza-zenbaterako osoa inbertitu dela agiri bidez egiaztatzen daitekeen.
6. Laguntza horien onuradun diren proiektuek bermatuta izango dute ZINEBIren Foro Profesionalaren hurrengo edizioan erabateko parte hartzea, garatzen ari diren proiektu gisa, betiere proiektuaren egoerak aukera ematen badu proiektua testuinguru horretan aurkezteko. Halaber, Jaialdiaren bi edizioen artean, proiektuek onlineko hiru jarraipen saio izango dituzte, Foro Profesionalari lotutako eta ZINEBIko zuzendaritzak izendatutako aditu batekin.
7. Epaimahaiaren erabakia apela ezin izango da.
8. Gaztedokun parte hartzeko hautatutako proiektu guztiek ZINEBIk emandako partaidetza ziurtagiria jasoko dute.

J. PARTE HARTZEA ONARTZEA

1. Hautatutako taldeek parte hartuko dutela berretsi beharko dute bost egun balioduneko epean, hautaketaren berri ematen denetik zenbatzen hasita.
2. Epe horretan baieztatzen ez bada, hautatutako proiektua beste proiektu batekin ordeztu ahal izango da.
3. Gaztedokun parte hartzeak oinarri hauek osorik onartzea dakar.
4. Hautatutako pertsonak antolatzaileek aurreikusitako saio, aholkularitza saio, aurkezpen eta jardueretara joateko konpromisoa hartzen dute, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.
5. Hautatutako taldeek programa jendaurrean komunikatzeko beharrezkoak diren materialak eman beharko dizkiete antolatzaileei, hala nola irudiak, sinopsia, biografiak, ikus-entzunezko estekak eta zentzuz eskatutako beste edozein material. Antolatzaileek behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko dizkiete beharrak taldeei.



K. HAUTATUTAKO ETA SARITUTAKO PROIEKTUEN BETEBEHARRAK

1. Hautatutako proiektuek, ahal den neurrian, Gaztedoku 2026en parte hartu dutela adierazi beharko dute ondoren komunikaziorako egiten dituzten materialetan.
2. Garapenerako laguntza bat jasotzen duten proiektuek honako hau adierazi beharko dute beren kreditu eta material publikoetan: "Gaztedoku 2026 - Pórtico ZINEBI 68 Atariaren laguntzarekin", eta antolakuntzak ematen dituen logotipoak erantsi beharko dituzte.
3. Hautatutako proiektuek baimena eman beharko diote ZINEBIri teaser edo pilotuaren zatiak, irudi finkoak, argazkiak eta sustapenerako materialak erabiltzeko, programari eta Jaialdiari lotutako informazio eta komunikazio helburuekin.
4. Baimen horrek ez du obra ustiatzeko eskubideen lagapenik ekarriko berekin, programaren komunikazioari, dokumentazioari eta sustapenari hertsiki lotutako erabilera eskubideak izan ezik.
5. Proiektuen egile eta ustiapen eskubideak egileei edo legeko titularrei dagozkie uneoro.

L. PROGRAMA ATZERATZEA, ALDATZEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA

1. ZINEBIk beretzat gordetzen du Gaztedoku 2026 guztiz edo partzialki eteteko, atzeratzeko edo bertan behera uzteko eskubidea, ezinbesteko arrazoiengatik edo behar bezala justifikatutako arrazoiengatik.
2. ZINEBIk, halaber, oinarri hauek osorik edo zati batean aldatzeko eskubidea gordetzen du beretzat, programa hobeto garatzeko beharrezkoa denean.
3. Funtsezko edozein aldaketa parte hartzen duten ikastegiei eta taldeei jakinaraziko zaie.

M. IRUDI-ESKUBIDEAK

1. Parte hartzaileek baimena ematen diete ZINEBIri eta programaren erakunde babesle eta laguntzaileei, Gaztedokun parte hartzen duten bitartean, beren irudia, ahotsa, izen-abizenak, argazkia, biografia eta identifikazio pertsonaleko gainerako elementuak hartu eta erabiltzeko.

2. Baimen hau programa, Pórtico ZINEBI Ataria eta ZINEBI Jaialdia edozein euskarri fisiko edo digitaletan, eta bide eta sare guztietan dokumentatzeko, haren berri emateko eta sustatzeko ematen da.

N. DATU PERTSONALAK BABESTEA.

1. Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna ZINEBI - Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia / Arriaga Antzertia Kultur Ihardueretako erakundea, S.A. izango da (helbidea: Arriaga plaza 1, 48005 Bilbo).
2. Emandako datuak Gaztedoku 2026en parte hartzea, hautaketa prozesua, programako jarduerak, parte hartzen duten taldeekiko komunikazioa eta, hala badagokio, laguntzak emateko eta laguntzen justifikazioa kudeatzeko erabiliko dira.
3. Datuen berri eman ahal izango zaie hautaketa batzordeko kideei, epaimahaikideei, aholkulariei, erakunde laguntzaileei eta administrazio publikoei, baldin eta programa behar bezala garatzeko beharrezkoa bada.
4. Parte hartzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, horien aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta lekualdatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte erakundeari zuzendutako jakinarazpen baten bidez.
5. Datuen babesarekin lotutako edozein gai jorratzeko, ZINEBIk ofizialki adierazten duen harremanetarako helbidea erabili ahal izango da.

O. GATAZKAK EBAZTEA

Esku artean dituzun oinarrien interpretazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak eta oinarrien aplikaziotik sor daitezkeen gatazkak ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren antolatzaileek ebatziko dituzte.

P. HARREMANETARAKO DATUAK

Oinarri hauei buruzko edozein kontsulta egiteko, pertsona eta ikastegi interesdunak honako helbide honen bidez jar daitezke harremanetan antolatzaileekin: **info@zinebi.eus**